



2. ERRONKA :

LURRA MARTERI DEIKA:

Aurrera eta aurrera eginez... bigarren erronkara iritsi gara pixkanaka! Beste moduan esanda, jende askoren buruan aukeratu duzuen eta garrantzitsua iruditzen zaizuen gaiaren inguruan KLIK bat eragiteko unea da hau. Hona hemen jarraipenak!

GILTZARRIAK:


- Gertatzen denaren kausa eta ondorioak ikertu. Nola eragiten die honek nerabeei?
- Egoera hobetu dezaketen aldagaiak zeintzuk diren aztertu.
- IKUSPUNTU POSITIBOTIK egindako Spot komertzial bat diseinatu, egoera hobetze aldera gizarteak gaiarekiko kontzientzia hartzeko eta aldaketara gehitzeko balio dezala.
- SPOTA grabatu, gainontzeko ikasleak ere animaraziz.
- Urrutira iritsi dadila bideoa!!

Erronkaren hasiera-eguna: Martxoak 2.

Bideoa sarera igotzeko azken eguna: Martxoak 21.

URRATSEZ URRATS:

1. Gaia aukeratua duzue, badakizue zein egoera zehatz aldatu nahi duzuen zuen ingurunean baina... zuen buruari galdetu al diozue zergaitik gertatzen den eta zeintzuk diren ondorioak? Gaia ondo ezagutzea indarra emango dizue prozesuan. Eutsi horri, beraz!
2. Gaian sakondu eta gero galdera honi erantzun:
Zer da (gizarte bezala) aldatu behar duguna egoera honi aurre egiteko?



3. Gizarte moduan gure jarrera aldatzeko garrantziaren kontzientzia sortuko duen SPOT hezitzaile baten egitura diseinatu. Nori zuzendua dagoen pentsatu, zer den adierazi nahi duzuen eta nola nahiko zenuketen egin (dibertigarria eta sortzailea den zerbait aurkitzen baduzue esperientzia paregabea izan daiteke honakoak!)

4. Gainontzeko ikasleei SPOT komertzialaren grabaketaren berri emaezue eta uneren batean bertan azaltzera gonbida itzazue. Hiria gai honen inguruan sentsibilizatzeko grabazio bat egitea zeinen garrantzitsua den azaldu .

5. SPOT komertzialaren amaieran... "Gu Geu Gea!" esan denok batera.

6. Parte-hartu duten pertsona guztiekin batera bideoa urrutira iristeko moduko estrategia diseinatu, hiri guztira iritsi dadila zuen mezua!!

Amaierako bideoak bi minutuko iraupena izango de gehienez. Bi zati izango ditu: Lehenengo zatian prozesua erakutsiko da (minutu batekoa gutxi gorabehera), eta bigarrenean, SPOTa (30 segundu baino gutxiago eta minutu bat baino gehiago ez dezala izan). Behin editatzen duzuela, gure helbide elektronikora bidali webgunera igo dezagun.

Gogoratu martxoaren 21era arte duzuela bideoa bidaltzeko!

**Ba al dakizue nork egingo duen zer?
Aurrera ba ekipo!**

GU GEU GEA!

Erronkaren inguruan zalantzarik izatekotan info@emanhar.org-ra idatziguzue edo Instagram nahiz Facebook bitartez egin!